BIZITEGI ERAIKINA — BERGARA 13

D MAILA

Egileak eta data: Ziur aski, Manuel de Urcolarena eta Domingo Eceizarena; 1883
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena
Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko hiru goi oin eta fatxada planoan jasodura bat eta estalkipe bat, eraiki berriak, dituena: Fatxadako horma atal zentrala goi oinetan, arinki atzeratua, erlaitzean isla duena. Apainduran eta konposizioan izaera berekoa Bergara 11rekin. Eraikin hustu berria.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak:estalkipea (5. goi oina).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.